

IRAGARKIA

Jarduneko Alkateak 2026ko uztailaren 29an emandako dekretu baten bitartez Auzo-taxi programarako dirulaguntzak eta horiek aurretik izapidetzeko deialdi publikoa arautzeko oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

AUZO-TAXI PROGRAMARAKO DIRULAGUNTZAK ETA HORIEK IZAPIDETZEKO DEIALDI PUBLIKOA ARAUTZEKO OINARRIAK

ZIOEN AZALPENA

Bergarako Udalak 2025eko urtarrilaren 27an egindako bileran onartu zuen Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025-2027. Bertan lerro estrategiko desberdinak jasotzen dira, eta horien artean honako hau:

7. lerro estrategikoa: Auzoak, Landa-garapena, Ingurumena eta Iraunkortasuna.

Lerro horretako 3. ekintza da landa-auzoetako bizilagunen mobilitaterako laguntza.

Bestalde, plan horretan aurreikusten da dirulaguntza hauek urtero emango direla plana indarrean dagoen bitartean eta dirulaguntza emateko deialdi irekia egingo dela. Helburu horrekin prestatu dira oinarri hauek.

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Oinarri hauen xedea da garraio publikoko zerbitzu erregularra erabiltzerik ez duten landa-auzoetako biztanleei udalerrri barruan bidaiatzeko taxia erabiltzeagatik dirulaguntzen emakida arautzea, 2026ko deialdi honen indarraldian.

Deialdi honen indarraldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da, betiere aurrekontu-kreditua lehenago agortzen ez bada.

2. artikulua. Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza hauek onartzeko dagoen kreditu erabilgarria **5.000,00 eurokoa** da.

Gastu hau 2026ko ekitaldiko aurrekontuko dagokion dirulaguntza partidatik ordainduko da.

Dirulaguntza hauetarako diru-izendapena 2026ko abenduaren 31 baino lehen bukatuko balitz, agortutako unean bertan udaleko web-orrian eta udal iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bitartez horren berri emango da, eta programa bukatutzat emango da, beste dirulaguntzarik eman gabe.

3. artikulua. Onuradunak

Eskaera egin dezakete eta onuradun izan daitezke jarraian zehazten diren baldintzak eskaera aurkeztzen duten egunean betetzen dituzten pertsona fisikoak:

1.- Bergaran erroldatuta egotea I. eranskinean agertzen diren auzoetako batean.

2.- 18 urtetik gora izatea, edo 12-18 urte bitartekoa izanda gurasoen edo tutoreen baimena izatea.



3.- 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere sartuta ez egotea.

4.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

5.- Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta, zergaz aparte, tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du pertsona eskatzailea Bergarako Udalarekin egunean dagoela.

4. artikulua. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.1.- Eskabide-orriak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean zabalduko da, eta irekita egongo da partidari dagoen dirua agortu arte eta, gehienez ere, 2026ko abenduaren 31ra arte.

Dirulaguntza agortzen bada, horren berri emango da udalaren web-orrian eta udal iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, eta programa amaitutzat joko da, beste dirulaguntzarik eman gabe.

Eskaera Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez.

4.2.- Eskabide-orria eskatzaileak edo ordezkariak behar den moduan beteta eta sinatuta aurkeztuko da, artikulua honetako hurrengo puntuan aipatzen den dokumentazioarekin.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu, eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu:

1.- Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.

2.- Aurkezteko eragin zuen prozeduraren izendapena. Dirulaguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebatzeko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administrazio eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu arrazoiak emanez.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatzeko.

4.3.- Eskaera egiteko udal inprimakia erabiliko da eta eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskatzailearen NANA, AIZa edo pasaporteak.
- b) Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, dagokion ordezkaritza-inprimakia ere aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, inprimakian bertan aipatzen diren dokumentuekin batera.
- c) Adin txikiko batentzat eskatuko balitz, Familia Liburuaren fotokopia edo adingabearen identifikazioa eta gurasoen edo tutoreen baimena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- d) Erabiltzaileak dirulaguntzaren ordainketa taxi-gidariari zuzenean egiteko emandako baimena edo endosu-agiria, behar bezala beteta eta sinatuta.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatze-baldintza betetzen dela eta Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

Foru Ogasunari: zerga-betebeharrak egunean izatea.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari: Gizarte Segurantzarekiko obligazioen ordainketan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

4.4.- Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago, udaleko sail eskudunak jakinarazpen bat bidaliko dio eskatzaileari 10 egun baliodun eman ez falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Eskaerak aztertzerakoan edo geroago edozein momentutan, udalak interesdunari eskatu ahal izango dio 4.3 atalean aurreikusi ez den dokumentazio osagarria aurkeztea, ikusteko bidezkoa den dirulaguntza onartzea, mantentzea edo ukatzea.

4.5.- Eskaera egitean, eskatzaileak oinarri hauek eta deialdi hau baldintza barik onartzen ditu.

4.6.- Aurreko deialditik eskaera aurkeztuta izan eta onartuta zutenek ez dute dirulaguntza eskaera berririk egin beharko, baldin eta udalak hala erabakitzen badu eta espedienteen jasota geratzen bada baldintzak betetzen jarraitzen dutela. Udalak ofizioz baieztatu ahal izango du dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen jarraitzen dutela, eta, hala badagokio, endosu-agiria eguneratzea eskatu ahal izango du.

5. artikulua. Diruz lagunduko den xedea

Diruz lagunduko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten bidaiak:

- Udalerrri barruan egindako bidaiak: erabiltzaileen etxebizitzatik erdigunera —kaskora—, beste landa-auzo batera edo —soilik Angiozarkoen kasuan— Elgetako anbulatorioaren ordutegian Elgetara; eta baita alderantzizko norabidean ere.
- Bidaia horiek Bergarako taxi-lizentzia izan eta Bergarako Udalarekin programa honetarako dagokion harremana formalizatuta duten taxi-gidariekin egitea.
- Bidaiak egitea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta gehienez ere 2026ko abenduaren 31ra arteko epean, ez baldin bada aurrez agortu dirulaguntza hauetarako aurreikusita zegoen dirua.



- Egindako ibilbideak I. eranskinean jasotako auzo bateko etxebizitza batetik erdigunera —kaskora—, beste landa-auzo batera edo —Angiozarkoek soilik— Elgetako anbulatorioko ordutegian Elgetara izatea, edota alderantzizko norabidean.

Bidaia honako egun eta orduen barruan egitea, abuztuan izan ezik:

Astelehenetik ostiralera: 7:30 – 20:30.

Larunbatetan: 09:00 – 20:30.

Igande eta jaiegunetan egindako bidaia ez dira diruz lagunduko, ezta abuztuan egindako bidaia ere.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

6.1.- Erabiltzaileak egiten duen ibilbidea 10 km baino gutxiagokoa bada, dirulaguntza 13 eurokoa izango da astelehenetik ostiralera, eta 13,5 eurokoa larunbatetan.

Ibilbidea edo bidaia 10 km baino luzeagoa bada, dirulaguntza 16 eurokoa izango da astelehenetik ostiralera, eta 16,5 eurokoa larunbatetan.

Beraz, erabiltzaileak 3,5 euro ordaindu beharko dizkio taxi-gidariari.

6.2.- Joan-etorria egiten denean, joan eta etorri bakoitza bidaia bat izango da.

6.3.- Artikulu honetan aurreikusitakoaren barruan, onuradunei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa, betiere, diru-izendapenari baldintzatuta geratuko da.

7. artikulua. Instrukzioa eta erabakia

7.1.- Udaleko sail eskudunak egiaztatuko du ea eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu den eta laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen diren.

Hori eginda, baldintzak betetzen badira, auzo-taxi txartela prestatuko da eta eskatzaileari emango zaio, eta, laguntza izateko eskubidea duela egiaztatzeko, pertsona horren datuak eskubidea duten pertsonen zerrendan sartuko dira.

Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez badira, dagokion erabaki-proposamena egingo da.

Lurralde Batzordeari edo dagokion batzorde informatzaileari dirulaguntza hauen kontrolaren berri emango zaio. Udaleko sail eskudunak emandako txartelen berri emango dio batzordeari, bai eta eskaera egin duen pertsonari dirulaguntzarik ez badagokio, horren gaineko erabaki-proposamena ere.

Txartel hori taxi-gidariari derrigorrean erakutsi beharko zaio egindako bidaiaren ibilbidearen dirulaguntza jaso ahal izateko.

7.2.- Auzo-taxiaren txartela pertsonala eta besterenezina da; titularrak baino ezingo du erabili. Behar moduan ez erabiltzea dirulaguntza baliogabetzeko arrazoia izango da.

7.3.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea gehienez ere bi hilabetekoa izango da. Gehienezko epe hori igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik gabe edo txartelik eman gabe, interesdunek ulertu ahal izango dute eskaera atzera bota dela administrazioaren isil bidez.

Hartutako erabakiak administrazio-bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra udaleko alkatearen aurrean berraztertzeko errekurtsioa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa tartekatze ere, Donostiako



Administrazioarekiko Auzien organo eskudunaren aurrean, indarrean dagoen araudian ezarritako moduan.

7.4.- Adingabeak —12 eta 18 urte bitartekoak— bakarrik bidaiatu ahal izateko, txartel pertsonala izan behar dute eta guraso edo tutoreek horretarako baimena eman beharko dute. Guraso edo tutoreek baimendutako adingabeak euren gurasoen edo tutoreen erantzukizunpean bidaiatuko dute ondorio guztiekin.

8. artikulua. Dirulaguntzaren kudeaketa

8.1.- Dirulaguntza kudeatuko da programa honetan parte hartzen duten taxi-gidarien lankidetzarekin, oinarri hauetan jasotako berezitasunei kalterik egin gabe.

8.2.- Auzo-taxiaren txartela eskuratu ondoren, bidaia egiteko interesa duen pertsonak hiru ordu lehenago deitu beharko du edo whatsapp-a bidali beharko du txartelean jasoko den telefonora.

8.3.- Bidaia hasi aurretik, taxi-gidariak egiaztatu egin beharko du erabiltzaileak eta hark eskatutako zerbitzuak auzo-taxi programaren dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako, honako pauso hauek eman beharko ditu:

- Auzo-taxi txartela eskatzea eta indarrean dagoela egiaztatzea.
- Zerbitzua eskatu duen pertsona auzo-taxi txartelak adierazten duen bera dela egiaztatzea.
- Erabiltzaileak eskatutako ibilbidea auzo-taxi programan aurreikusitako eremuaren barruan dagoela egiaztatzea.

Zehaztutako jardun guztiak egin ondoren, taxi-gidariak egindako ibilbide bakoitzeko formulario bat bete beharko du, taxi-gidariak eta erabiltzaileak sinatuko dutena.

8.4.- Erabiltzaileak bidaia amaitutakoan hiru euro eta berrogeita hamar zentimo —3,50 euro— ordainduko dizkio taxi-gidariari.

Programa honen barruan emandako zerbitzuagatik ibilbidea edo bidaia 10 km baino gutxiagokoa bada, faktura gehienez 16,5 eurokoa izango da astelehenetik ostiralera eta 17 eurokoa larunbatetan, BEZa barne. Ibilbidea edo bidaia 10 km baino luzeagoa bada, faktura gehienez 19,5 eurokoa izango da astelehenetik ostiralera eta 20 eurokoa larunbatetan, BEZa barne.

8.5.- Taxi-gidaria bidaia bakoitzean auzotar bat baino gehiago jasotzen ahaleginduko da, efizientzia eta jasangarritasuna bermatzeko.

9. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

9.1.- Dirulaguntzaren onuraduna erabiltzailea izango da, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituenetan eta egindako bidaiak diruz laguntzeko modukoak direnean.

9.2.- Onuradunari dagokion dirulaguntza taxi-gidariari ordainduko zaio zuzenean, endosatario gisa, erabiltzaileak horretarako emandako baimenaren edo endosuaren arabera.

9.3.- Taxi-gidariari endosatario gisa egiten zaizkion ordainketak, ondorio guztietarako, erabiltzaile onuradunari aitortutako eta ordaindutako dirulaguntzatzat joko dira. Ordainketa horiek ez dute aldatuko dirulaguntzaren onuradun izaera; onuraduna erabiltzailea izango da beti.

9.4.- Udalak, bere datuetan oinarrituta, aldiro, onuradunei auzo-taxi programaren barruan beraien izenean kontabilizatu diren bidaien eta zenbatekoen gaineko informazioa bidaliko die.



Informazio horren helburua izango da onuradun guztiei egindako bidaien eta dirulaguntzaren gaineko jarraipena eta kontrola ahalbidetzea.

10. artikulua. Dirulaguntzaren zuriketa

Dirulaguntza zurituko da programan parte hartzen duten taxi-gidarien bitartez. Horretarako, taxi-gidariek zerbitzuaren formularioak aurkeztu beharko dituzte, zerbitzuaren erabiltzaileei emandako fakturen kopiekin batera.

Aurrekoaren kaltetan barik, dirulaguntza justifikatzerakoan zalantza edo intzidentziaren bat sortuko balitz —bai zenbatekoari buruz, bai dirulaguntzarik dagokion ala ez zehazteari buruz—, udalak taxi-gidariari egoera argitzeko dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio.

Berdin jokatu da erabiltzaileari zerbitzua ematerakoan taxi-gidariarekin arazoren bat sortu bada auzo-taxi programa erabili ahal duen ala ez argitzeko eta erabiltzaileak bidaiaren kostu osoa ordaindu behar izan duen kasuetan. Kasu horretan, taxi-gidariari eskatu ahal izango zaio udalean aurkez dezala dagokion faktura; horrela, udal zerbitzu teknikoek egiazta dezaten dirulaguntzarako baldintzak betetzen diren ala ez, eta justifika dezaten.

Azken kasu horretan, dirulaguntza ordaintzea onartuko balitz eta erabiltzaileak erabilitako auzo-taxi zerbitzuaren kostua osorik ordaindu badu, dagokion zenbatekoa zuzenean erabiltzaileari ordaindu ahal izango zaio.

Artikulu honetan eta gainerakoetan jasotakoak ez du inolako eraginik izango auzo-taxi zerbitzua erabiltzeagatik erabiltzaileek faktura eskatzeko duten eskubidean; izan ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko legeriari eta aplikagarri den gainontzeko legeriari jarraituz, taxi-gidaria behartuta dago faktura ematera.

11. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu bera lortzeko jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan —beste dirulaguntza batzuekin batera zein bakarrik— diruz lagunduko den zerbitzuaren kostua baino handiagoa.

12. artikulua. Dirulaguntzaren aldaketa

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

13. artikulua. Dirulaguntzaren publizitatea

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen denaren arabera.

14. artikulua. Obligazioak ez betetzea. Itzulketa kasuak

1.- Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako

dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea, dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa, ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

- a) Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.
- b) Dirulaguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuketena baldintzak ezkutatzuz.
- c) Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d) Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.
- e) Organo eskudunen kontrol-jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea.
- f) Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutako gainerako kasuak.

2.- Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

15. artikulua. Dirulaguntza itzularazteko prozedura

- 1.- Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.
- 2.- Dirulaguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza ematen duen organoak hala erabakita, hura izapidetzeko ardura duen administrazio-atalak txostena egin eta gero, edo bestela banakoren batek eskatuta edo salatuta.
- 3.- Prozedura izapidetzean, beti bermatuko da interesdunari entzunaldia emateko eskubidea.
- 4.- Emandako dirulaguntza osoa edo horren zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean premiamenduzko bideari ekingo zaiola.
- 5.- Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.
- 6.- Itzultzeko prozedura dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisikoen aurka zuzenduko da.
- 7.- Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

16. artikulua. Bermeak

Ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzak direla-eta udalaren aldeko bermeak eskatzea.

17. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta,



oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziook egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

18. artikulua. Oinarri-arauen interpretazioa

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dagokion batzorde informatzaileak, hala badagokio, aldez aurretik programaren arabera txostena egin eta gero.

19. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Bergarako Udalaren Aurrekontua Betearazteko Araua, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

20. artikulua. Oinarrien aurkako errekursoak

Oinarri-arau hauek onartzeko erabakiaren aurka, zeinak administrazio-bidea amaitzen duen, berraztertzeke errekurtoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtoaren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango da zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskumena duen organoaren aurrean, bi hileko epean.

Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek edo deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkoztat jotzen den beste edozein egintza edo errekurto jarri ezingo denik.

Bergara, 2026ko uztailaren 30a

Jarduneko Alkateak



I. ERANSKINA

AUZO-TAXI PROGRAMAN SARTZEN DIREN AUZOAK

Angiozar

Goiauzoa

Basalgo

Osintxu —diseminatua—

Buruñao

San Juan

Elorregi

Sanantonabat

Elosua

Aldaiegia



II. ERANSKINA

AUZO-TAXI PROGRAMAKO DIRULAGUNTZA TAXI-GIDARIARI ZUZENEAN ORDAINTZEKO BAIMENA / ENDOSUA

Onuradunaren datuak

Izen-abizenak:

NAN/AIZ:

Helbidea:

Telefonoa:

Taxi-gidariaren datuak

Izen-abizenak edo sozietatearen izena:

NAN/IFZ:

Lizentzia zenbakia, hala badagokio:

Adierazpena eta baimena

Nik, goian adierazitako onuradunak, Bergarako Udalaren Auzo-Taxi programaren barruan dagokidan dirulaguntzaren onuraduna naizen aldetik, honako hau baimentzen dut:

- 1.- Bergarako Udalak Auzo-Taxi programaren barruan aitortzen didan dirulaguntzaren zenbatekoa taxi-gidariari zuzenean ordaintzea, endosatario gisa.
- 2.- Taxi-gidariari egindako ordainketa hori, ondorio guztietarako, niri onuradun gisa aitortutako eta ordaindutako dirulaguntzatzat jotzea.
- 3.- Baimen honek Auzo-Taxi programaren barruan diruz laguntzeko modukoak diren bidaietarako izango du eragina, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera.

Baimen honek ez du aldatzen dirulaguntzaren onuradun izaera; onuraduna erabiltzailea izango da beti.

Bergaran, 20__(e)ko _____aren __(e)an.

Onuradunaren sinadura: